



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Terrorista zoro horiek

Maiz ekarri dut zutabe honetara film eta serieetan «terroristen» inguruan eraikitzen den irudia. Aste honetan «Esterno Notte»

(Marco Bellocchio, 2022) ikusi dut. Aldo Moreoren bahiketa kontatzen duen serie korala da. Estetikoki zaindua, gidoia eta kapituluaren antolaketa ere oso interesgarriak dira. Ametsekin eta kontrafaktualekin jolasten du zuzendaria, bukaera alternatibo posibleekin. Zuzendariak berak egin zuen hori gaia landu zuen aurreko aldiaren ere, “Buongiorno, notte” (2003) filmean.

Seriearen kasuan, pertsonaien traiera puztuta dago, baina modu inteligentean dago egin. Nork esango zidan Cossiga barne ministroarekiko enpatia puntua sentituko nuela! Egia esan, filmeko protagonista gehienekin enpatia sortzea lortzen du zuzendaria: Aldo Moro, haren emazte Eleonora, Cossiga, Paulo VI.a Aita Santua... Guztiekin? Ez, guztiekin ez. Brigadisten pertsonaiek ez dute batere enpatiarik sortzen.

Laugarren kapituluko («I terroristi») protagonistak dira Brigada Gorrietako kideak eta gainerako pertsonaiek kontuz eta arduraz eraikita dauden arren, azken horiek ezin dute ihes egin estereotipoetatik. Inoiz baino argiago agertzen da botereak eraikitzen duen arrazoia vs. emozioa dikotomia. Estatua arrazionala da, iluna ere bai, baina bere erabakiak, okerrak barne, ondo hausnartuak ditu. Terrorismoa inpuetsiboa da, haren argumentuak terroristek beraien ere ez dituzte sinesten eta inolako estrategiarik gabe jarduten dute.

“Esterno Notte”ko brigadistak goizean goiz hondartzara joan eta urari tiroka hasten dira, “Brigate Rosse! Brigate Rosse!” oihukatuz. Norbaiti tiro ematen diotenean irribarre egiten dute eta poztu egiten dira. Ez dago haus-

narketarik, ez dago gordintasun eta arrangurarik. Zein urrun gelditu den zinema zuzendariek borrokalari armatuak irudikatzean determinazioa, ñabardurak, seriotasuna eta ekinbidearen zailtasunak kontatzen zituzten garaia, Fritz Lange (“Cloack and Dagger”, 1946) edo Andrej Wajdak (“Popiol i diament”, 1958) egin zuten bezala.

Dikotomia argiak eraikitzen ditu serieak, terroristen anabasa emozionala azpimarratuz. Brigadistak poztu egiten dira jendeak beldurra duen bitartean. Buruzagi demokristauak familiarekin zoriontsu bizi nahi lukete eta brigadistek, aldiz, beren familiak abandonatzen dituzte. Demokristauak ezkonbitza pasio gabeak dituzte eta brigadistek, aldiz, bizimodu sexual ak-

tiboa eta pasioz betea dute. Demokristauak denbora luzea pentsakor pasatzen dute eta brigadistek, aldiz, kale erdian eztabaidatzen dute Moreorekin zer egin.

Estereotipo horiek errepikatzen dira behin eta berriro iritzi publikoan (irrazionalak, burugabeak, gazte eroak, fanatikoak...), baina fenomeno politikoa eta haren protagonistak izandakoak ezagutu eta ulertzea zailtzen du horrek. Nahi duenak ikusgai du “I, Dolors” (Maurice Sweeney, 2018) filma edo bilaketa erraz batean topa ditzake ahoan bilorik gabe eta zuzen hitz egiten duten Mario Moretti edo Brendan Hughes bezalako militante interesgarriekin egindako elkarrizketak. Euskal Herriaren kasuan, zoritxarrez, hitz egitea ere delitu da oraindik. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI